

# ZARAUZKO GIZARTE ZERBITZUAK

PRESTAZIO ETA  
ZERBITZUEN GIDA

[www.zarautz.eus](http://www.zarautz.eus)



ZARAUZKO UDALA

<p><b>01</b> Gizarte Zerbitzuak</p>	<p><b>4</b> ORRIALDEA</p>		<p><b>09</b> Familia, haurrak eta gazteak</p>	<p><b>15</b> ORRIALDEA</p>	
<p><b>02</b> Zer eskaintzen da</p>	<p><b>5</b> ORRIALDEA</p>		<p><b>10</b> Genero indarkeria jasan dituztenei zuzendutako arreta zerbitzua</p>	<p><b>16</b> ORRIALDEA</p>	
<p><b>03</b> Prestazio ekonomikoak</p>	<p><b>6</b> ORRIALDEA</p>		<p><b>11</b> Droga mendekotasun prebentzio zerbitzua</p>	<p><b>17</b> ORRIALDEA</p>	
<p><b>04</b> Adineko pertsonak</p>	<p><b>8</b> ORRIALDEA</p>		<p><b>12</b> Immigrazio zerbitzua</p>	<p><b>18</b> ORRIALDEA</p>	
<p><b>05</b> Adineko pertsonak / Ostatu alternatiboak</p>	<p><b>11</b> ORRIALDEA</p>		<p><b>13</b> Elkarte sozialei diru-laguntzak</p>	<p><b>21</b> ORRIALDEA</p>	
<p><b>06</b> Adineko pertsonak / Aisialdi eta osasun ekintzak</p>	<p><b>12</b> ORRIALDEA</p>		<p><b>14</b> Garapenerako lankidetzak</p>	<p><b>22</b> ORRIALDEA</p>	
<p><b>07</b> Ezinduentzat zerbitzuak</p>	<p><b>13</b> ORRIALDEA</p>		<p><b>15</b> Hainbat sozial mailako programak</p>	<p><b>24</b> ORRIALDEA</p>	
<p><b>08</b> Udalaren aisialdi zerbitzuak</p>	<p><b>14</b> ORRIALDEA</p>		<p><b>16</b> Lan mahaiak</p>	<p><b>25</b> ORRIALDEA</p>	

## Gizarte Zerbitzuak

**Gizarte zerbitzuak herritar guztiarentzat ate ireki bat dira, bertan da egunero 18 lankideko talde bat: gizarte langileak, teknikariak eta administrariak osaturikoa**

### 1.1 Non Gaude

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak  
Zigordia Kalea 33 behea

### 1.2 Ordutegia

Asteleheneretik ostiralera 8:30tatik 14:30tara

**Tel:** 943 00 51 11

**Helbide elektronikoa:** ongizatea@zarautz.eus



## Zer eskaintzen da / Gizarte zerbitzuen funtzio nagusiak:

**Zarauzko Gizarte Zerbitzuak herritarren eta elkarte guztien eskura daude, eta helburua herritarren ongizatea eta bizi kalitatea hobetzea da. Gizarte Zerbitzuen funtzio nagusienetakoa eskubide eta baliabideei buruz informazioa ematea, balorazioa egitea eta orientatzea da. Herritarrari, gizarte baliabideei buruzko informazioa emango zaio, eskaera egin duen pertsonarekin batera eskaerari bide eman dion egoera baloratuko da, eta kasu bakoitzerako egokienak diren zerbitzu, prestazio eta laguntzak bideratuko dira.**

Hortaz, beste batzuen artean hauek dira funtzio nagusietako batzuk:

- 2.1** Dauden gizarte baliabideen berri eman eta orientabideak eskaintzea.
- 2.3** Diagnostikoak eginez eskaeren inguruko balorazioa egitea.
- 2.4** Gizarte eta familia arloko esku-hartze proiektuak prestatu eta burutzea.
- 2.5** Hainbat prestazio eta gizarte baliabideren tramitazioa kudeatzea.
- 2.6** Prebentzio eta gizarteratze proiektu eta zerbitzuak kudeatzea.

### Hitzordua Eskatu:

Aldez aurretik ordua eskatu zure interesekoa den edozein gairi buruz hitz egiteko. Telefonoz egin dezakezu edo bertara etorri.



## Prestazio ekonomikoak

### 3.1 Gizarte Larrialdiko Laguntzak

Eusko Jaurlaritzak Udalarari luzatzen dion dirua da; Gizarte bazterkeria gerta ez dadin edo halako bazterkeriak konpontzeko behar-beharrezkoa diren gastu zehatzak ordaintzeko nahiko baliabiderik ez dutenentzat dira. Gastu arruntak edo ohiz kanpoko gastuak ordaintzeko izango dira. Helburu jakin baterako erabiliko diren diru-laguntzak dira. Adb. alkilerria, kreditoa edo hipotekaren ordainketarako, etxeko altzari edo konponketak, norbere premietako(janaria,arropa, garraioa...).

laz Eusko Jaurlaritzak 137.599,00 € onartu zizkigun; eta krisia medio 176.152,30 € banatu ziren. Hau da, Udalak 38.553,30€kin osatu behar izan zituen eskaerei erantzuna emateko. Aurtengorako Eusko Jaurlaritzak 145.941,00 €ko diru-laguntza onartu dio Zarauzko Udalarari.

### 3.2 Kotizatu gabeko pentsioak

Gutxienekoa bermatzeko laguntza da. Alde batetik, prestazio hau % 65 baino minusbaliotasun handiagoa dutenak; eta bestetik, 65 urte baino gehiago duten pertsonak jaso dezakete. Hau da,bi modalitate daude: ezgaitasunagatik ematen den kotizatu gabeko pentsioa eta erretiroagatik ematen den kotizatu gabeko pentsioa.

### 3.3 Banakako laguntzak

Gastu zehatzei, ohiko edo ez ohikoei, aurre egiteko baliabide eskasak dituzten familiei edo pertsoneri zuzenduak daude. Diru hau udalak berak ipintzen du.

Dirulaguntza honen bitartez ,Udalak beste sistema publikoek babesten ez dituzten beharrei aurre egiten die.Adb.osasun gaietarako,familia giroan adin

txikiko edo gaztearen garapen eta heziketan eragingo duen zailtasunen bat dagoen kasuetan, Ostatu edo etxebizitzarako; eta bereziki bakarrik eta laguntzarik gabe bizi direnen autonomia urriko pertsonak, baztertu, isolatu edo bakarrik uzteko arriskuari aurrea hartzeko.

laz banatu dira 36.694,53€ eta Udalak aurtengo aurrekontuetan 110.000,00€ jarri ditu.

### 3.4 Diru sarrerak bermatzeko laguntzak

Gipuzkoako Foru Aldundiak luzatzen duen dirulaguntza bazterkeri sozialari aurre egiteko; Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren babes izateko baldintzak betetzen ez dituztenei zuzendua.Bete beharreko beste baldintzen artean: 23 urte beteta edukitzea; Egungo elkarbizitza unitatea eskaeraren data baino gutxienez 12 hilabete lehenago eratu izana, Gipuzkoan erroldatuta egotea eta Gipuzkoan bizitzea eskaeraren data baino 12 hilabete lehenago gutxienez.

Aldi baterako laguntza, aipatutako Euskal Sistemaren baldintza betetzen den arte.

### 3.5 Mendekotasuna eta zaintzarako aldundiko diru laguntzak

Mendekotasun legeak laguntzak ezarri ditu mendekotasun egoeran dauden pertsonentzat edo beren zaintzarako; mendekotasun mailaren arabera.

Pertsona bakoitzaren mendekotasun maila eta behar dituen zaintzak Gipuzkoako Foru Aldundiaren balorazio organoa da.



## Adineko pertsonak / Familia giroan moldatzeko baliabideak



### 4.1 Mendekotasunaren balorazioa:

Autonomia fisikoa, zentzumenarena, psikikoa edo adimen-autonomiaren galera edo faltarekin lotutako arrazoiengatik mendekotasun egoeran aurkitzen diren eta sorospen edo laguntza garrantzitsuak behar dituzten pertsonen zuzenduta dago, egunerokoak diren ekintzak eta, zehazki, norbere zainketari dagozkion ekintzak aurrera eraman ahal izateko.

Mendekotasun legeak zenbait prestazio izateko eskubidea aitortzen die pertsonen, mendekotasun mailaren arabera.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren balorazio organoa da pertsona bakoitzaren mendekotasun mailari buruzko irizpena ematen duena eta pertsona bakoitzak behar dituen zaintzak zehazten dituena.

### 4.2 Etxez etxeko laguntza

Etxez etxeko laguntza zerbitzua norbere autonomia eta segurtasuna mugatua dutenentzat, eta ohiko jarduerak egin ezin dituztenentzat da. Etxean bertan ematen den zerbitzua da, ohiko inguruan integratzen eta egoten laguntzeko: enpresa subkontratazio baten bitartez eramaten da aurrera.

### 4.3 Eguneko Zentroa

Adineko pertsonentzako eguneko arreta eskaintzen du; Udalak adierazitako egun eta orduetan. Zerbitzu hori etxez etxeko laguntza osatzeko eta laguntza horren eta egoitzetako egonaldiaren bitarteko izateko sortu zen. Helburu nagusia adineko pertsonak ahalik eta denbora gehienez euren inguruan

mantentzea da; horretarako euren benetako beharrei erantzuneko dien arreta orokorra eskainiko zaie. Eguneko Zentroan dauden zerbitzuak: jantokia, osasun-azterketa, podologia, ile-apainketa, arreta eta zaintza, eta garbiketa.

Kudeaketa enpresa subkontratazio baten bitartez: 7 monitore-laguntzaile, bi garraiolari, sukaldaria, eta beste profilekoak jardunaldi partzialera (psikologoa, gizarte langilea...).

### 4.4 Tele asistentzia

Telelaguntza gizarteari laguntzeko eta gizartean esku hartzeko zerbitzu teknikoa da, lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuen testuinguruan kokatua, erabiltzaileei, telefono-linearen bitartez eta komunikazio- eta informatika-ekipamendu espezifiko bati esker, etengabeko arreta zerbitzua edukitzeko aukera ematen diona, eguneko 24 orduetan eta urteko egun guztietan, larrialdiko edo gizarte-premiako egoerei erantzun egokia emateko bereziki prestatuta dauden pertsonen ardurapean.

### 4.5 Sendian programa

Sendian programaren helburua hirukoitza da: mendeko pertsonak zaintzen dituzten pertsonen laguntzea, haien karga pertsonala arintzea eta familiako elkarbizitza ez hondatzeko babesa eskaintzea.

### 4.6 Aldi baterako egonaldiak

Zerbitzu honen bitartez egoitza batean bizitzeko aukera ematen zaie etxean bizi ohi diren adineko mendeko pertsonen, hainbat arrazoi direla-eta, denboraldi jakin batez, etxean bizi ezin dutenean, ezin dutelako zaintzarik jaso.

Hona hemen zerbitzu horren helburuak:

- Adinekoari laguntzea bere etxean bizitzen jarrai dezan.
- Zaintzaileei atseden hartzeko aukera ematea.
- Adinekoari laguntzea, haren zaintzaileak une jakin batean ezin badio lagundu.

Araudia:

### 4.7 Laguntza teknikoak

Helburua da, alde batetik, mendeko pertsonei produktu lagungarriak eskuratzea, horien bidez bizi-kalitate hobea eta eguneroko gauzak egiteko autonomia lortzeko. Eta bestetik, mendekoak zaintzen dituzten familiei ere laguntza-tresnak eskuratzea.

Hauek dira laguntza teknikoak: pertsonaren urritasunak eta mendekotasuna prebenitzeko, konpentsatzeko, arintzeko edo neutralizatzeko berariak egindako edozein produktu, tresna, ekipo eta sistema tekniko.

### 4.8 Suteen prebentzioa

Bakarrik bizi eta 80 urtetik gorako dituzten pertsonei, baita bi pertsona etxebizitza berdinean bizi direnei ere, betiere biak 80 urtetik gora dituztenean, eskainiko zaien zerbitzua da. Egurrezko egiturak dituzten etxeak lehentasuna dutela.

Udalak horretarako kontratuko duen enpresak ondorengo lanak burutuko ditu: etxeko lehen bisita, Arriskuak antzemateko prebentziozko ikuskapena, prebentzioa eta segurtasunari buruzko eskuliburua eman, kea detektatzeko gailu elektronikoak hornitu, instalatu eta puntuan jarri, ebakuazio posible bat errazteko behar den krokisa prestatu...

Zerbitzua dohainik izango dela erabiltzaileentzat, eta ez hori bakarrik: urtero egin beharreko mantenuko lanak ere Udalak burutuko ditu.

## Adineko Pertsonak / Ostatu alternatiboak



### 5.1 Zaharren egoitza

Zentro horietan adineko ezinduei ostatua, mantenua eta zaintza orokorra eta jarraitua eskaintzen zaie.

Honako zerbitzu hauek eskaintzen dituzte:

- Ostatu zerbitzuak
- Zaintza pertsonaleko eta banakako laguntzako zerbitzuak
- Mediku eta erizaintza zerbitzuak: balorazioa eta jarraipena
- Zerbitzu psikosozialak

### 5.2 Babespeko etxebizitza

Bizitoki ekipamenduak dira, adineko pertsona autonomo edo mendekotasun urrikoak bizitzeko dira. Apartamentu hauek bizikidetzarako aukera ematen diote adineko pertsonari eta bere etxean bertan izango lukeen bizimoduaren antzekoa eskaintzen die, baina betiere, udalaren babespean. Maria Etxexiki eraikinak babespeko 41 apartamentu, banakakoak eta bikoitzak, guztira 50 plaza.

Kudeaketa enpresa subkontratazio baten bitartez, eta bere langilegoa ondorengo da: 2 monitore laguntzaile, 1 gaueko zaintzailea, sukaldaria, eta beste profilekoak jardunaldi partzialera (psikologoa, gizarte langilea...).

## Adineko Pertsonak / Aisialdi eta osasun ekintzak

**Udalak zuzenean zenbait ekintza zuzentzen ditu, Udaberri Jubilatuen Elkartetik eta Iñurritza Jubilatuen Elkartetik bideratzen diren apartekoetatik.**

### 6.1 Mugibil

Helburu nagusi bezala 3.adineko pertsonak taldean aisialdiko jarduera eta ariketa fisikoa egitea, Zarauzko natura-inguruneak jarduera fisikorako ematen dituen aukerak erabiliz. Eta horrekin ondorengo onurak lortu: Osasuna sustatu, gaixotasunak prebenitu, sozializatu, eta ingurumenaren iraunkortasunari lagundu.

### 6.2 Irtenbil

Etiket ateratzeko arazoak dituztenei zuzentzen den zerbitzua; bai gurgil aulkidunak direlako edota arazo fisikoak dituztelako, eta gainetik oztopo arkitektonikoekin topatzen direlako; adibide baterako:igogailu gabeko etxebizitzak...

Pertsona horiek gehienetan kalera irten gabe geratzen dira. Horren aurrean Udalak udako hilabeteetan kasu horiei zerbitzu bat eskaintzea erabaki du:etxeko jaitsiera-igoerako lanak "scalamobil" baten bitartez egingo da,modu oso erosoan.



## Ezinduentzat Zerbitzuak



### 7.1 Balorazioa

Ezgaitasun edo minusbaliotasun mailaren kalifikazioa Gipuzkoako Foru Aldundiak egiten du, eskumen eskusibo hori ematen dioten lege xedapenei jarraituz.

1. Zer nolako ezintasun maila duen
2. Eguneroko oinarrizko gauzak egiteko beste pertsona baten beharra duen (ATP baremoa)
3. Garraio publiko kolektiboa erabiltzeko zailtasunik duen (mugikortasun baremoa)

Ezgaitasunaren eta faktore sozial osagarrien balorazioa indarrean dauden araudietan ezarritako baremoak aplikatuz egiten da, balorazio unitateko teknikariek emandako irizpen tekniko fakultatiboen bidez.

### 7.2 Orientazioa

Ezgaituen beharren arabera baliabide espezializatu eta komunitarioetarako orientazioa:

1. Egoitza zerbitzu espezializatuak
2. Enplegu eta bestelako jarduera okupazionalak
3. Eguneko jarduera
4. Laguntza goiztiarra
5. Aholkulari baten laguntza bere gauzak egin behar dituztenean, edota ingurukoekin harremanetan egon behar duenean.

### 7.3 Familia giroan moldatzeko baliabideak

Kolektibo honi zuzenduriko baliabideak dira, bere ezaugarri propioekin, honako hauek ere: Telaguntza / Laguntza teknikoak/ Etxe etxeko laguntza/ Eguneko Zentroak ...


## Udalaren Aisialdi programak

### 8.1 Udaran

Ezintasun fisiko eta psikikoa duten gazteentzat udaleku irekiak uztaila eta abuztuko arratsaldetan burutzen dira; astean hirutan, astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan arratsaldeko 5:30etatik 8:30etara; 13-25 urte bitarteko gazte ezinduentzat.

### 8.2 Asteburutan

Udalak jarri berria du bederatzi eta hamasei urte bitartekoei zuzendua, hilean bitan larunbat arratsalde batean aisialdiko zerbitzua.



## Familia, haurrak eta gazteak

**Udaletik esku hartzeko orduan, haurtzaro sailetik eremu komunitarioko bitartekoekin egiten da lan (eskola, gaztelekua, ludoteka, osasun arloa, haur psikiatria...) eta baita ere zerbitzu espezifiko batzuen bitartez. Horien artean:**

### 9.1 Terapia familiarra


gabinete terapeutiko bitartez eramaten da aurrera, kualifikatutako profesionalekin

### 9.2 Heziketa familiarra

hezitzaile profesionalekin eramaten da aurrera, familiaren eremuan bertan.

### 9.3 Kale Heziketa

Arrisku egoeran dauden gazteak euren talde naturalean, edota egituratutako batean, biltzen dira, eta gazteak sartuta dauden proiektuko helburuak lortzera bideratutako ekintzak egiten dira: bai banakakoak, taldekoak edo komunitarioak. Gazte kopuru handia mugitzen da.





## Genero indarkeria jasan dituztenei zuzendutako arreta zerbitzua

### 10.1 Genero indarkeria jasan dutenen esku-hartzea eta terapia saioak

Arlo honetan arreta, laguntza eta informazioa ematen zaie etxeko indarkeria eta sexu erasoak jasan dituztenei.

### 10.2 Laguntza psikologikoaren programa

Foru Aldundiak diruz lagundutako eta psikologoaren elkargo ofizialarekin adostutako programa da. Norbanako 18 sesio bideratzen dira.

### 10.3 Talde terapia

emakumeari bere egoera emozionalean laguntzeko aukera ematen dio; hamar-hamabost emakumek osaturiko taldea izaten da .

### 10.4 Larrialdiko edo babespeko etxebizitza

Udalak genero-indarkeriaren biktimentzako harrera-etxe bat dauka. Tratu txarrak jasan izanaren ondorioz ohiko bizilekua aldatzera behartuta dauden emakumeei, edo haien mende dauden pertsoneri (seme-alabei,...) aldi baterako bizitokia ematen zaie



## Droga mendekotasun prebentzio zerbitzua



**Droga-mendekotasunari aurre egitea, osasun hezkuntza lantzea eta drogen erabilera oker eta neurrigabearen ondorioz sortzen diren arazoei erantzutea ditu helburu nagusiak prebentzio komunitarioko zerbitzuak.**

### 11.1 Informazioa, aholkularitza eta orientazioa eskaintza

- Seme-alaben jarrerarekin eta kontsumoarekin kezkatuta dauden gurasoei.
- Ikasleekin prebentzioa eta droga mendekotasunak sortzen dituen arazoak landu nahi dituzten ikastetxe edo irakasleei.
- Droga eta drogen kontsumoarekin kezkatutako dagoen eta prebentzio mailan ekintzak antolatu nahi dituen edozein taldeei
- Drogei eta droga mendekotasunari buruz informazioa nahi edo behar duen edonori.
- Arlo honetan kezka edo zalantzak dituen edonori.

### 11.2 Prebentzio programak ikastetxeetan

Zarauzko ikastetxeekin elkarlanean, zenbait programa garatzen dira eskoletan osasun hezkuntza eta baloreak jorratzeko. Programa horiek ikasleengan jarrerak, baloreak eta prebentzio gaitasunak sustatzeko dira.

### 11.3 Gurasoentzat formakuntza

Konpartitzeko, prestatzeko eta hausnartzeko balio duen espazioa da. Seme-alabekin barneratuta ditugun jokamoldeak aztertzen dira eta satisfazio handiagoko beste batzuegatik ordezkatu. Helburua zera da, ahal den baldintza osasungarrietan haztea eta hezteko seme-alabak.

## Immigrazio zerbitzua

**Immigrazio zerbitzuak udal-arloetan lagundu beharko du, etorkinei harrera egiten, elkarrekiko harremanak sustatzeko proposamenak eta neurriak diseinatzen, udal-eremuan elkarrekin bizi diren hainbat jatorritako lagunak eta kulturak babesten, ezagutzen eta berdintasunez balioesten, eta immigrazioari buruzko tokiko plana edota diagnosia egiteko garaian dinamizatzen, koordinatzen eta bultzatzen.**

Besteak beste honako programak daude indarrean:

### 12.1 Harrera-euskara ikastaroa

Kanpotik Zarautza bizitzera iritsi berri direnentzat euskara-harrera ikastaroa. Ikastaro honen helburua etorri berriek herritar giza dauzkaten eskubide eta betebeharen berri ematea da, herriko baliabide, zerbitzu, eta kultura ezagutzearekin batera.

Horretarako euskara da etorri berrien integrazioa lantzerakoan erdi-erdian kokatzen dugun aldagaia.

Ikastaroak 60 orduko iraupena du eta euskarazko onarrizko irakaspenak ematez gain ondorengo edukiak lantzen dira: herriko baliabideak (kultura, kirola, aisialdia, enplegua, natur ondarea formakuntza, eta abar), atzerriartasuna, lan arloko eskubideak, Gizarte Zerbitzuak, Osasun sistema, zaborraren birziklapena, gizon eta emakumeen arteko parekidetasuna, eta errolda.

Urtean bi ikastaro izaten dira, bata goizez eta bestea arratsalde; kostea 10euro.



### 12.2 Zarauztruk

Zarauztruk Zarauzko Denbora Bankua da. Zarauzko Udalak martxan jarritako ekimena.

Denbora Bankua zerbitzuen trukaketa-sistema bat da, non zerbitzuak denborarekin trukatzeko diren.

Banku honetan zerbitzuak "erosteko" ez da dirua erabiltzen, norberaren denbora baizik.

Bankuko kideen artean zerbitzuak trukatzeko dira, eta zerbitzu horiek trukatzeko denbora da erabiltzen den trukaketa-elementua.

Adibidez, pertsona batek bankuko beste kideren bati zerbitzu bat eskaintzen badiu eta langintza horretan 2 ordu eman baditu, gero, bankuko beste kideren batek eskaintzen duen zerbitzua beste bi ordu hartu ahal izango du.

Ekimen honek herritarren arteko elkartasuna eta berdintasuna bultzatzen duen neurrian, gizarte-batasuna lantzeko balio du, hainbat esparrutan eragiten duelako.

18 urtetik gorako Zarauzko herritar guztiei zuzendua.

### 12.3 Itzulpen telefonoa

Zerbitzu hau Udalarekin komunikatzeko da, eta euskaraz edota gaztelaniaz espresatzeko zailtasunak dauzkaten herritarrentzat da.

Udaleko Herritarren arreta Bulegoak, Gizarte Zerbitzuek eta Udaltzaingok eskaintzen du Zerbitzu hau.

Itzultzen diren hizkuntzak 51 dira, tartean gure inguruan eta mundu zabalean gehien hitz egiten direnak, hala nola: arabiera, txinera (mandarinera eta kantonierara), urduera, errusiera, wolofera eta abar.

Zerbitzua doakoa da.

### 12.4 Ahulkularitza Juridikoa

Gipuzkoako SOS Arrazakeriarekin hitzartutako akordioaren bitartez, orientazio juridiko zerbitzua eskainiko du, Zuberoa 22ko bulegoan. Zerbitzua astelehenetan goizeko 10etatik 14etara eskainiko dute. Aurretik hitzordua hartu behar da.

### 12.5 Aniztasunean bizi

Kultur aniztasuna errespetatzen duen bizikidetzaren baten aldekoak diren saioak sortu Erlo telebistan, adibidez, honako edukiekin:

- Eskualdean kultura aniztasunaren inguruan ematen diren berriak: programak, datuak, atzerriartasun arloko berrikuntzak.
- Eskualdeko herriren batean dagoen programaren baten azalpena: Auzoko, Harrera saioak, Etorrinak eskolan, zubiak errotzen, Ikasle laguntzailea, ipuin-kontalaria, eta abar.
- Bizitza istorioak: gurera etorritako bizilagun berriren baten istorioa (etorkin euskaldunak).
- Eskualdeko hizkuntzak, astero hizkuntza bat: hiztun kopurua (hemen eta han), non hitz egiten den eta abar.
- Zurrumurruak: ba al zenekien? Edo horrelako formatu batean zurrumurruak desmontatzea.

### 12.6 Ikastexeekin sentsibilizazio programak

Zarauzko ikastetxeekin elkarlanean, zenbait programa garatzen dira aniztasunaren inguruko baloreak jorratzeko. Programa horiek ikasleengan jarrerak, baloreak eta gaitasunak sustatzeko dira: ikasle laguntzailea, ipuin kontalaria, perkusio tailerrak, jostailu afrikarrak...

## Elkarte Sozialei diru-laguntzak

**Diru-laguntza hauen bitartez, Elkarteen funtzionamendua, zein elkarte-jarduerako kolektiboek zuzendutako berariazko programen edota zerbitzuen garapena finantza daiteke. Halaber, Udaleko Gizarte Zerbitzuek beren jarduerak burutzean antzemandako premia zehatzak konpon ditzaketen jarduera-eremuetara zuzendutako programa edo zerbitzuen garapena proposatzen duten jarduera edo proiektuetarako ere eskaini ahal izango dira, eta kolektibo zehatz batzuen parte-hartzea eta ongizate fisikoa, psikikoa eta soziala sustatzen dituzten jardueretarako ere bai.**

Testuinguru honetan Udaleko Gizarte Zerbitzuek bi motako diru-laguntzak ematen dituzte:

### 13.1 Zuzenak

Adibidez: Gurutz Gorria, DYA, Caritas, Harrera elkarteak, ARI, Udaberriko eta Iñurritzako Jubilatuen elkarteak...

### 13.2 Deialdi irekiak

Adibidez: Atzegi, Agifes, Nagusilan, AECC, Izan Fundazioa, Itxaropen



## Garapenerako lankidetzak

### 14.1 Nazioarteko garapenerako diru-laguntzak

Deialdi honen helburua garapen bidean diren herrialdeetan lankidetzak-proiektuetarako diru-laguntzak ematea da. Horietan ere zuzenak edota deialdi irekiaren bitartez izan daitezke.

Aurkeztutako proiektuak printzipio gidari hauetan oinarritzen dira:

- Helburuko populazioen ekonomia- eta gizarte-garapenerako premiei erantzutea eta gizarte-sektore kaltetuenetan eragina izatea.
- Gizarte-garapenerako programen barruan burutzea, komunitate onuraduneko kideen partaidetza eta prestakuntza sustatzea, eta tokiko eta eskualdeko erakundeekin garapena bultzatzea.
- Kultura-erazpena saihestea eta komunitate hartzailearen idiosinkrasia eta ingurumena errespetatzea.
- Hiritar guztiek oro har horien onurak jaso ahal izatea, emakumeen eta haurren egoera berezia kontuan izanda, eta beroien aukeren garapena sustatuta.
- Proiektuaren helburuko kolektiboekin eta Zarauzko udalerriararen arteko elkartasun-erlazioak sustatzea eta finkatzea.

### 14.2 Larrialdietarako diru-laguntzak

Atzerrian gertatzen diren ezbeharrei aurre egiteko diru-laguntzak dira. Iaz, adibidez: Gazara (Palestina) errefuxiatuak behar duten laguntza helarazteko eman zen.

### 14.3 Sentsibilizaziorako diru-laguntzak

Beren helburua Zarauzko udalerrian bertan garapenera sentsibilizatzeko edota hezteko proiektuetarako diru-laguntza da. Proiektu horiek Zarauzko herritarrek garapen-bidean diren herrialdeen errealitatea eta problematikari, garapenerako elkarlanaren oinarriari, arrazismoari, xenofobiari eta herrialde horietako Giza Eskubideen babesari buruz duten iritzi publikoaren informazioa, prestakuntza edo sentsibilizazioa sustatu behar dute.



## Hainbat sozial mailako programak:

### 15.1 Larrialdiko apartamentuak

Lau apartamentu, guztira 13 plaza egiten dituztela.

Zarautzen bizi edo erroldatutako edozein pertsona edo bizikidetzaren unitate izan daiteke, oro har, larrialdiko apartamentuen onuradun: baldin eta egoera larrian badaude bizitokiaren edo bizikidetzaren aldetik arazo handiak dituztelako.

Gehienez 6 hilabeteko epea jartzen da, hau da, arazoak bideratzen diren bitarteko egonaldiak dira.

### 15.2 Neguko aterpea



Helburu nagusia neguan igarotzeko aterperik ez dutenei gutxienezko babes eskaintzea da, kalean bizitzeak eragiten dituen osasun eta gizarte arazoak leuntzeko.

Aterpetxeak 15 pertsona jasotzeko gaitasuna du, gaueko 9etatik goizeko 9ak arte; azarotik martxora bitartean.

### 15.3 Babespeko etxebizitza soziala

Udalak guztira 16 etxebizitza sozial ditu, eta hauek herritarren esku jartzen ditu alokairu sozial baten truke. Horietako bat ezinduentzat egokitutako etxebizitza da.

Zerrendak bost urtero berritzen dira, eta bere unean epe bat irekitzen da.



## Lan-mahaiak

**Arlo desberdinetako lan koordinazioa eta partaidetza bultzatzeko helburuarekin lan-mahai desberdinak sortuta daude gure departamentuan.**

### 16.1 Mahai Sozio-Sanitarioa

Gizarte Zerbitzuetatik anbulatorioko mediku arduradunarekin eta erizainekin, baita Osasun mentalekoekin eta osasun arloko beste eragileekin ere aldizkako bilerak burutzen dira; Horietan arlo desberdinen arteko ekintza koordinatuak bultzatu eta sortzearen alde egiten da lana.

### 16.2 Hirugarren Adinekoen mahaia

Bertan parte hartzen dute modu eraginkor batean 3. adineko elkarte desberdinak. Denon artean hausnarketa desberdinak eta proiektu edo zerbitzu berrien proposamenak lantzen dira.

## 16.3 Zarauztik Mundura mahaia

Zarauztik Mundura Zarauzko kulturen jaia antolatzeko jaiotako mahai partehartzailea da.

Mahai honen egitekoa Zarauztik Mundura jaia antolatzea da, baina jai hori ez ezik bestelako ekintzak ere antolatzen eta proposatzen dira, beti ere herriko kultura aniztasuna islatu eta zabaltzeko asmoarekin.

Ekintza guztiak Udaleko Immigrazio Zerbitzuarekin elkarlanean egiten da.

Antolatzen dituzten ekintzak:

- Zarauztik Mundura jaia
- Bertakoak
- Urtean zehar ekintza solteak: arrazismoaren aurkako eguna, etorkinaren eguna...

Parte hartzen dutenak Zarauzko herritarrak dira, urteetan Zarauztik mundura jaia antolatzen aritu direnak. Herritar guztientzat zabalik dagoen esparrua da. Urtean bitan asanblada orokorra elkartzen da: antolaketa lanak egin eta gero ondorioak asanblada nagusiari aurkezteko.

